



PRENTSA OHARRA: 2020.10.01

Toulouseko Cinespaña jaialdiak euskal zinemagintzari eskainitako saila antolatuko du

- Urriaren 2tik 11ra bitarte iraungo duen zinemaldian, lau ataletan banatutako euskal zinemagintzaren atzera-begirakoa eskainiko dute.

- Horrez gain, Oskar Alegria euskal zinegilearen *Zumiriki* filma Dokumental Onenaren atalean lehiatuko da.

Urriko lehen hamabostaldian euskal zinemaz beteko da Frantziako Toulouse hiria. Espainiar zinemagintzari eskainitako **Cinespaña** jaialdian, **Etxepare Euskal Institutuarekin** sinatutako hitzarmen bidez, euskal zinemagintzari atzera-begirakoa egingo diote, **Nouveau cinéma basque** izeneko sailaren bitartez.

Jaialdiaren aurkezpen-hitzetan, “Ziklo honek euskal zinemak azken boladan izan dituen ildo ezberdinak zeharkatuko ditu, film arrakastatsuenetatik hasi eta egile independenteen ekoizpenetaraino”. Izan ere, antolakuntzaren ustetan, “Duela hamarkada bat pasatxotik, [Euskal Herriko] toki eta gertaera batzuetan zinema independentearen olatu baten ernamuina sortu da, Espainiako interesgarrietako eta emankorrenetako bat izaten amaitu duena”.

Euskal zinemagintza berria deritzon XXI mendeko olatuari dedikaturiko atal honek Euskal Herrian euskaraz eta gazteleraz egindako fikzioa, dokumentala, film luze eta laburrak jasoko ditu. Lau ataletan banatuko dute egitaraua: “**Moriarti**”, izen bereko ekoiztetxearen lan esanguratsuenak bilduko dituen; “**Fictions**”, azken urteotan fikzioan gailendu diren pare bat film eskainiko dituen; “**Documentaires**”,



dokumentalgintzan azken urteotan izandako izenburu esanguratsuak jasoko dituen; eta **“Court-Métrages – Cuerpos, gritos y escenas de vida”** izeneko atala, emakumeek film laburren bidez euskal zinemagintzari ekarritako begirada berriari eskainia.

Azken urteotan Euskal Herri mailan ez ezik, estatu mailan eta nazioartean oihartzuna lortu duen izenik baldin badago, horiek **Moriarti** ekoiztetxearen atzean ezkututzen diren Jon Garaño, Jose Mari Goenaga eta Aitor Arregi dira. Eurek, kasu guztietan elkarlanean, egindako pelikula esanguratsuenak eskainiko dituzte Cinespañaren azpiatal honetan: *80 egunean* (2011), *Loreak* (2014), *Handia* (2018) eta *La trinchera infinita* (2020), azken hau, gainera, aurre-estreinaldi moduan.

“Fictions” izeneko azpiatalean, azken hamarkadan sona izan duten eta euskal gizartearen bi gai esanguratsu abordatzen dituzten beste bi film eskainiko dituzte. Bata, Asier Altunaren *Amama* (2015), baserrien eta landa-bizitzaren desagerpenaren eta familia-belaunaldien arteko loturen etenaren inguruko kezka plazaratzen duen filma. Bestea, Borja Cobeagaren *El negociador* (2014), Espainiako gobernuak ETArekin zubi lana egin dezan kontratatzen duen negoziatzaile baten istorioa kontatzen duen lana.

Euskal **dokumentalgintzan** azken urteotan zer esana eman duten filmak egon direla frogatzeko, zinemagintza mota honi eskainitako atal bat ere egongo da egitarauan. Bertan, Ana Schulzek eta Cristóbal Fernándezek errodatutako *Mudar la Piel* (2018), David Arratibelen *Converso* (2017) eta Oskar Alegriaren *Emak Bakia baita* (2012) izango dira ikusgai.

“Court-métrages – Cuerpos, gritos y escenas de vida” azpiatalarekin emango dio amaiera Cinespañak euskal zinemagintza berriaren atzera-begirakoari. Antolakuntzaren hitzetan, “Film hauek ahizpatasunaren eta borroken transmisioaren inguruan hitz egiten digute”. “Iraultzarekin jarraitu behar duten horiei guztiei eta aurretik izan direnei omenaldia” egin nahi izan diete azpiatal honekin. Izenburu hauek bilduko ditu: Irati Gorostidi eta Arantza Santestebanen *Euritan* (2017), Maria Elorza eta Maider



Fernandezen (Las Chicas de Pasaik) *Gure Ormek* (2016), Maria Ibarretxe eta Alaitz Arenzanaren (Sra. Polaroiska) *Andrekale* (2016), Izibene Oñederraren *Lursaguak* (2019) eta Mirari Echávarriren *Cuerpos #1 Santa Águeda* (2017).

Euskal zinemagintzari eskainitako atzera-begirakoaz gain, bada beste sail batean izango den euskal film bat ere. Arestian aipatutako **Oskar Alegria** zinegile nafarraren *Zumiriki* dokumentala (2019) Film Dokumental Onenaren sariarengatik lehiazteko hautatua izan da.

25 urtez Espainiako zinema sustatzen

Toulousen urtero antolatzen den Cinespaña jaialdiak 25. urteurrena izango du aurten. 1992an sortu zuen AFICH elkarteak (Zinema Hispaniarraren Nazioarteko Jaialdiaren Elkarte) Les Écrans de l'Histoire izenez, eta Espainiako Gerra Zibila oroitzea zuen helburu. Laster aldatu zuen, ordea, bere izaera, zinema espainiarraren urteroko erakustaldi bilakatuz.

Lehenengo edizioetatik, Madrilgo Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak (ICAA) laguntza eskaintzen dio jaialdiari eta, urteen eraginez, beste erakunde batzuk gehitu zaizkio laguntzaile moduan. Estatu espainiarreko zinemagintzaren izen esanguratsuak izan dira bertan, besteak beste, Fernando Fernan Gómez, Carmen Maura edota Marisa Paredes. 2019. urteko edizioan 31.500 bisitari izan zituen, eta 119 film eskaini ziren 57 aretotan (11 Toulousen eta beste 46 eskualdeko herrietan).



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus